

2002an, zirkulazio-aparatuko gaixotasunak eta tumoreak izan ziren heriotza-kausa nagusiak

18.619 pertsona hil ziren, aurreko urtean baino 532 gehiago, eta bere hartan iraun zuen hazkunde begetatibo negatiboak.

Euskal AEn. 2002an, 18.619 lagun hil ziren, 9.875 gizonetzko eta 8.744 emakumezko; aurreko urtean baino 532 heriotza gehiago. Zifra horretan, %2,9ko gehitzea gertatu zen, 2000. urtearen aldean, EUSTATen datuen arabera.

Jaiotzak baino 486 heriotza gehiago gertatu ziren. Horrenbestez, 1990etik gertatu den bezala, Autonomia Erkidegoko hazkunde begetatiboa negatiboa izan zen. Lurraldeka, saldo positiboak gertatu ziren Araban eta Gipuzkoan, 325 eta 247 pertsona irabazi baitzituzten, hurrenez hurren. Bizkaian, berriz, heriotza-kopurua jaiotzena baino nabarmen handiagoa izan zen (-1.058).

Hilen batez besteko adina 75,6 urtekoa izan zen; 1990ean, aldiz, 71 urtekoa zen, hots, 4,6 urteko gehikuntza jazo da. Sexuka, gizonetzkoak batez beste 71,9 urterekin hil ziren, eta emakumezkoak 79,9rekin.

Haurren heriotza-tasari dagokionez, urtebeteko 3,4 adingabe hil ziren, mila jaioko. Jaioberritako heriotzak, hots, bizitzako lehendabiziko 28 egunetan gertatzen direnak, 40 izan ziren. Horietatik 27, jaioberritako heriotza goiztiarrak —aurreneko astean gertatuak—; eta azken horietatik 14, lehenengo 24 orduetan. Urtebetez beherakoen artean, gizonetzko hilak (33) emakumezkoak (28) baino gehiago izan ziren.


2002an jazotako heriotza gehien, %31,6 (5.891 heriotza), zirkulazio-aparatuko gaixotasunek eragin zuten; ondoren, tumoreek, %29,4 (5.467 heriotza); eta hirugarren, askoz atzerago, arnas aparatuko gaixotasunek, %10,44 (1.944).

Heriotzen kausak ez ziren berdinak izan sexu batean eta bestean: gizonetzkoen artean, tumoreak hilgarriago gertatu ziren zirkulazio-aparatuko gaixotasunak baino; emakumezkoen artean, berriz, heriotza-kausa nagusia gaixotasun kardiobaskularrak izan ziren, eta tumoreak bigarren.

Era berean, heriotzaren kausa ez zen berdina izan adin guztietan. Urtebetez beherakoen artean, heriotza gehien jaiotza-inguruko aldian sortutako gaixotasunek eta sortzeko anomaliak eragin zuten; 34 urte bitartean, kanpoko kausek; 35 eta 74 urte bitartean, tumoreek; eta 75 urtetatik aurrera, zirkulazio-aparatuko gaixotasunek.

Kanpoko kausek eragindako heriotzen artean, nabarmen ageri dira zirkulazioko istripuak (269 heriotza) eta suizidioak (187). Bi talde horietan, emakumezkoak baino gizonetzko gehiago hil ziren: 185 gizonetzko eta 84 emakumezko zirkulazio-istripuengatik, eta 130 gizonetzko eta 57 emakumezko suizidioengatik.

1. grafikoa: Heriotzak kausaren eta sexuaren arabera (%)



1. taula: Heriotzak sexuka, kausaren arabera.

	Gizonezkoak		Emakuzmekoak	
	Kop.	%	Kop.	%
Kausa guztiak	9.875		8.744	
Gaixotasun infektzioso eta parasitarioak	212	2,1	184	2,1
Tumoreak	3.437	34,8	2.030	23,2
Guruin endrokinoetako, elikaduraren eta metabolismoaren gaixotasunak	218	2,2	309	3,5
Trastorno mentalak eta portaeraren trastornoak	214	2,2	483	5,5
Nerbio-sistemako gaixotasunak	319	3,2	488	5,6
Zirkulazio-sistemako gaixotasunak	2.830	28,7	3.061	35,0
Arnas sistemako gaixotasunak	1.112	11,3	832	9,5
Txegoste-sistemako gaixotasunak	515	5,2	439	5,0
Sistema genitourinarioko gaixotasunak	184	1,9	154	1,8
Zantzu, zeinu eta aurkikuntza anormal klinikoak eta laborategikoak	154	1,6	334	3,8
Kanpoko heriotza-arrazoiak	558	5,7	237	2,7
Beste batzuk	122	1,2	193	2,2

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 017 500 Faxe: +34-945 017 501 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

Tel.: 49-945 017 534. Faxe: +34-945 017 501

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es